



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

17/12/01

Euskararen erabilera egunero indartzen jarraitzea animatzen dituzte herritarrak eta administrazioak Batzar Nagusiek

Bizkaiko Batzar Nagusietako talde guztiek gaur sinatutako Adierazpen Institutuzional batean, abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatuko dela baliatuta, herritar guztiei eta erakundeei eskatu diete euskara bultzatzeko lanean jarrai dezatela. Manifestuan, herritarrek oro har “euskara eskuratzeko eta lantzeko” egindako ahalegina goraiatzeaz gain, eskatu diete laguntzen jarrai dezatela, administrazio publikoekin batera, euskararen erabilera gero eta orokortuagoa izan dadin.

Aurten ere alderdi politiko guztiek ospatu nahi izan dute jai hau, “euskara urtean egun batez dugu ospakizunerako gai, eta 365 egunez langai” adierazita. “Seme-alabek euskaraz ikas dezaten nahi izan duten guraso erdaldunek egindako ahalegina” nabarmendu nahi du idazkiak, horixe baita egungo hizkuntza-paradigma osatzen duen zutabeetako bat. Dena den, zeregin hori oraindik ere amaitu ez dela nabarmentzen dute, eta, aitzitik, “orain, eta hemendik aurrerako urteetan, euskararen erabilera etengabe eta bizi-bizi areagotzea dugu langintza nagusi, ezagutzaren handitzearekin batera euskararen aldeko hizkuntza ohituren aldaketa sakona gauzatu dadin”.

Euskararen erabilera betikotzeko, taldeak bat datoz bide berriak behar direla nabarmentzeko garaian: “Une aproposa da administrazioek eta herri ekimenak auzolanean bide berriak zabaldu, eta gehiengo soziala euskararen alde egotetik euskararen alde egitera eramateko”. Horretarako hainbat tresna aipatzen dituzte, hala nola, “berrikuntza, herri aginteen arteko lankidetzak euskararen lurralde eta esparru guztietan”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Euskara gehiago erabiltzeko ekimen hau “gizarte ekimeneko euskalgintzako taldeei zein bestelako esparrutakoei, euskaldun osoei, euskaldun hartzaileei eta erdaldunei” zuzenduta dago, eta 365 egunetan egingo da osorik hartuta.

NOTA DE PRENSA

01/12/17

Las Juntas Generales animan a la ciudadanía y a las administraciones a seguir reforzando el uso del euskera día a día

En una Declaración Institucional firmada hoy por todos los grupos de las Juntas Generales de Bizkaia y, con motivo de la celebración del Día del Euskera el próximo 3 de diciembre, han solicitado al conjunto de la ciudadanía y a las instituciones que continúen con la labor de apoyo al euskera. En el manifiesto, además de ensalzar la labor que la ciudadanía como conjunto ha realizado “para aprender euskera y profundizar en su conocimiento”, ha solicitado que, junto con las administraciones públicas, continúen colaborando para que su uso sea cada vez más generalizado.

Un año más todos los partidos políticos han querido celebrar esta festividad alegando que “el euskera es motivo de celebración un día al año, y tarea común durante 365 días”. El escrito quiere destacar el esfuerzo de “los padres y madres no vascohablantes que se han propuesto que sus hijos e hijas estudien en esa lengua” como uno de los pilares que conforman el paradigma lingüístico actual. Aun así resaltan que no se trata de una labor que haya finalizado sino que “ahora, y en los próximos años, nuestra tarea principal consiste en acrecentar sin cesar y con viveza el uso del euskera, de manera que, paralelamente al aumento de su conocimiento, se opere una transformación profunda y positiva para el euskera de los hábitos lingüísticos”.

Con el fin de perpetuar el uso del euskera, los grupos coinciden en resaltar que hacen falta nuevos caminos: “Vivimos un momento idóneo para que las administraciones y la iniciativa ciudadana abran nuevas vías de colaboración en la tarea común, de manera que la mayoría



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

social pase de estar por el euskera a actuar por el euskera”. Para ello hacen referencia a instrumentos como la “innovación, la colaboración entre los poderes públicos de todos los territorios y ámbitos del euskera”.

Esta iniciativa en favor de un mayor uso del euskera está dirigida “tanto a los grupos de la *euskalgintza* de iniciativa ciudadana como a los de otros ámbitos, a las personas vascohablantes, a los vascohablantes pasivos y a quienes no conocen el euskera”, se realizará en conjunto durante los 365 días.